

## **EUSKARAREN LANGILE AUTONOMOEN INTERSINDIKALA**

Hurreratze baterako zirriborroa  
(2017-07-20)

Miel Anjel Elustondo / Koldo Izagirre

### Identitatea

Aspaldi eta mundu osoan dago frogatua hizkuntzen arteko gatazkak gatazka sozialen isla direla. Gure kasuan, euskararen langileen eskubideek **talka** egiten dute gaztelaniaren eta frantsesaren langileekin. Euskaldunek estatus minorizatua duen hizkuntza bat daukate lanabes, erdaldunek berriz estatus hegemonikoa duten hizkuntza bana dauzkate.

Euskararen langileei nazioa estuegi eta zabalegi zaie aldi berean: **klase kontzientzia eta hizkuntza kontzientzia** dira, gure multzoan, txanponaren bi aldeak.

Esan liteke hizkuntza dutela nazio.

### Barne gatazka

Euskarak produzitzen dutenen multzoa dauka, sortzaileen multzoa, eta produzitutakoa merkatuan kudeatzen dutenen multzoa dauka: bi multzook, hezkuntzaz eta irakaskuntzaz gain, euskalgintza esan ohi zaiona osatzen dute. **Euskararen bi multzook ere talka egiten dute, askotan, hizkuntzak sortzen duen ekonomian.**

### Idazleen adibidea

Oro har, publikoak uste du idazleok liburu saltzetik bizi garela. Errealitatea oso bestelakoa izan da beti, idazleak idaztetik bizi izan dira, baina ez liburuek horretarako ematen dutelako (liburuek ematen dute editorial bat mantentzeko, idazle asko eta liburu ugari dauzkatelako aldi berean produzitzen).

Alor askok dutelako idatziaren premia bizi da idazlea **idatzitakoa saltzetik**: filmeek eta telesailek gidoia behar dute, museoetan irudiak lagungarri izan ohi du testua, kanpaina publizitarioak nahitaezkoa du eslogan on bat, kantariak letrak behar dituzte...

Duela hogeitaz urte, hamar-hamabi bat lagun ginen idazle profesionalak. Isolatuak geunden eta lankide ez profesionaletatik oso urrun, gaur egun bezala. Idazle gehienak irakasleak edo funtzionarioak izan ohi dira, eta bestelako kezkak dauzkate, beraien arazoetarako sindikatu tradizionalak dituzte. Idaztea ez dutenez ogibide, ezin dute konprenitu **idazle profesionalon egoera**.

Euskara idatziaren langile autonomoak izugarri ugaritu dira azken urteotan: lan merkatuak ez du nolana kontratatzen. Ondorioz, **prekarietatean** bizi den euskal idazle eta kazetari multzo bat sortu da. Askok, tarteka baino ez du alta ematen autonomo bezala.

Eta gure kudeatzaileek, patronalari dagokion bezala, ordainketak jaitsi bai, baina abusuzko ohiturak aldatu ez.

### Euskararen langileen sindikatu baten zereginak

Aipatu ditugu egoeraren bi faktore handi: **prekarietate berri bat** eta **urteetako inpunitatea patronalaren eta kontratatzaileen aldetik**. Bi faktoreok indartzen dituzten jarreraren artean daude halako axolagabekeria bat autonomoak ez diren lankide askoren aldetik, profesionaltasunaren ondorio ekonomikoekiko ezjakintasunari lotua, eta autonomo gazteen etsipena.

Euskarak alor ekonomiko asko ditu langile autonomoetan, eta ezaugarri partikularrak dauzkate alorrok. Guztien artean, **euskalgintzaren zati garrantzitsu bat** hartzen dute, dinamikoena sarritan, eta gaizkien tratatua behar baino gehiagotan.

Adibide bat: euskararen idazle autonomoen egoera

. Anabasa handia daukagu **autonomo estatusen**, batzuk lanbide liberaletan daude, beste batzuk artistikoetan, toreroekin batera... Denen onerako egokitzapen bat aztertu behar litzateke.

. Liburua argitaratzeko **kontratu abusiboak** sinatzen ditugu, kasik editorial guztiek erabiltzen dute eredu bera, espainiarrek indarrean daukatenaren kopia, hau ere amerikarrenaren kopia. Ez gara gauza izan kontraproposamenik egiteko. Salbuespenak egin ohi dituzte zenbait idazlerekin.

. Euskal Herria **sari literarioz** betea dago. Legez kanpoko arauekin funtzionatzen dute lan saritua argitaratzen duten sari gehienek: **egile eskubideak beregaratzen dituzte** lehen ediziorako. Estafa kamuflatu bat: idazleak ordaintzen du saria!

. Egile eskubide finko bat ezarria dago ia editorial guztietan (salmentaren %10). Alabaina, Frantzian, Suitzan eta Alemanian **baremoa** handituz doa salmenta kopuruaren arabera. Editorial bakarra dago %12'5 ematen duena.

. Edizio digitaletarako proposatzen dituzten baremoak injustuak dira zeharo.

. Urteetan eta urteetan sinaturiko **kontratuak indargabetzeko** kanpaina bat egin behar da, eskubide moral eta ekonomiko justuak finkatutakoan.

. Liburuaren promozioan egiten diren ekitaldi, jendaurreko eta irakurraldietan egilea, onuradun denez, doan joan ohi da (bazkari edo afari truke, horrelakoak).

. Ez dago erreferentziazko tarifarik idatzitakoa kobratzeko unean.

Zehaztuz: idazleen alorreko zereginak

. **Autonomoen epigrafeen anabasean** ordena apur bat ezarri eta onuragarriena zaien huraxe proposatzea. Alholkua behar dugu denok.

- . Bere **interes moral eta ekonomikoak** defendatzea antzerkietan, kantugintzan, telebistan, irratian, paperean eta digitalean (egoeraren diagnostiko zehatza, aurrez).
- . **Tarifa estandar minimoak** proposatzea artikuluetan, testu publizitarioetan, museoetarako testuetan, itzulpenean, hitzaldietan eta mahai inguruetan.
- . **Ikastaroak** antolatzea profesionaltasunari dagozkion jakinbehar ekonomikoetan zein lanbidekoetan.
- . Elkarren laguntzarako **kutxa** sortzea.
- . Euskararen langile autonomoen **egoera duintzea**, bere ahotsaren jabe altxatzea.
- . **Indar kohertzitiboa** baliatzea, salaketa alegia, merkatu legearen edo euskalgintzaren aitzakian gertatzen diren abusuak eragozteko.
- . Euskal liburuaren **legea proposatzea**, sortzaileen eskubideak errespetarazteko eta irakurtzaletasuna sustatzeko.
- . **ISBN** (International Standar Book Number) zenbakiak euskararen marka eraman dezan presioa egitea euskaraz argitaratutako oro munduan erraz eta berehala identifikatu ahal izan dadin.
- . EAEko gobernua Segurantza Sozialaren eskumena eskatzen ari den uneon, garrantzizkoa jotzen dugu **euskaren langileen estatus berezia** sortzea, lanbide estrategiko bezala gure hizkuntzaren garapenean eta hedapenean, alegia, lanbide estrategikoa Euskal Herriaren garapenean.
- . Informazioa jasotzea **Ipar Euskal Herriko** euskararen langileen egoeraz.
- . **Epe luzeko estrategia** antolatzea, bekak eta bestelako aukerak aztertuz sorkuntzaren alorretarako (ez bakarrik idazle edo itzultzaileentzat).

#### Euskara idatziaren lanbide autonomoak

Idazleak, Kazetariak, Itzultzaileak, Gidoilariak , Testu zuzentzaileak, Marrazkilariak...

Idaztea transbertsala da lanbideotan, eta gertatzen da pertsona batek denetarik egitea, malgutasun eta konpetentziaren arabera. Denak aipatu ditugu hala ere,

alor bakoitzak bere baldintza ekonomiko propioak dauzkalako, eta bere patronala eta bere kontratzaileak.

Marraskilariak idazle izaten dira aldi berean (prentsako tirak egiten dituztenak bereziki), eta testu idazle ez direnek ere harreman berezia dute euskararekin (euskal literatura dago beren lanen oinarrian).

#### Euskara mintzatuaren lanbide autonomoak

Kantariak, Bertsolariak, Ipuin kontalariak, Hizlariak, Antzezleriak, Ikus-entzunezko zuzendariak, Irratietako kolaboratzaileak...

Idazleek, kantariak, kazetariak hitzaldiak ematen dituzte, mahai inguruetan hartzen dute parte. Hizlariak dira une askotan, eta zirkuitu ekonomiko berezia da hitzaldiena.

#### Sindikatu, Gremio, Lobby...

**Indar egingo duen langile erakunde bat** behar dugu euskararen langileok (euskararen langile asko artistak direla ahaztu gabe). Ez gara kopuru izugarria izatera inoiz iritsiko, baina elkarren arteko **antolamendu eraginkor bat** lortzen badugu egin genezake indar gure bizi baldintzak hobetzeko. Erakunde edo antolamendu txikia izango gara beste batzuen aldean, baina gure sinaduraren kalitatea daukagu, besteak beste, armatzat: badakigu esaten, badakigu idazten, badakigu kantatzen, badakigu antzeztzen... **Eragile bereziak gara** iritzi publikoan, gure hizkuntzaren **euskarria** (langileok) eta **arima** (artistak) garelako.